



unicef

unicef.es/educa

ESKOLAN SALBU

Babes-inguruneetan
ikasten

2018-2019 IKASTURTEKO GIDA

#EndViolence


Haurren Eskubideetarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza. Jarduerak eta baliabideak

Funtsezko datak: Elkartu zaitez!

AZAROAK 20


Haurren eguna

Laster helduko da gure bake-kanpainaren egun handia! Gure bake-txertoa dugu eta bada garaia gure ingurunean banatzekoa, guztiok egon gaitezen indarkeriatik babestuta. Baina gogoan izan: Txerto hau, hartu baino, pentsatu egiten da!



URTARRILAK 30

Indarkeriarik ezaren eta bakearen eskola-eguna



Bakearen aldeko bigarren txerto-aldia! Aprobetxatu egun hori zuen bake-txertoa leku guztietara iritsi dadin eta ahalik eta pertsona gehienek jaso dezaten. Gainera, aukerako eguna da garrantziko hausnarketa bat egiteko: Nola eraikiko dugu indarkeriarik gabeko ikastetxe bat haurren eskubideen esparru batean?

MARTXOAK 22

Uraren eguna



Ospatu ezazu Uraren Eguna, Nigerrerako Tanta lasterketa bat antolatuz. Tanta bakoitzak balio du eta era guztietako milaka ikastetxetako korrikalarien ahaleginak erakusten du hori urtero. Egin korrika Nigerren alde!

Ezagutu itzazu hemen, zure ikastetxeko egutegian gehitzeko, munduko egun gehiago: www.unicef.es/eus/educa/munduaren-egunak

GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
16. HELBURUA

Gizarte bakezaleak, bidezkoak eta inklusiboak, beldurrik eta indarkeriarik gabeak sustatu nahi ditugu. Elkartu zaitez!

3 xede, hezkuntzaren zeregina garrantzitsutzat dutenak:



Gure hezkuntza-jardunean aplikatu ditzakegun aldaketa-estrategiak:



Prebentzioa

Hezkuntzaren ikuspegia prebentzioan ikasleen ahalmen osoa garatzeko, indarkeriarik gabeko gizarte demokratikoetako herritarrak izateko.



Berrikuntza

Ikastetxeak eraldatzea etorkizun oparoago, inklusiboago eta jasangarriago baten nahiak bete ahal izateko.



Konpromisoa

Eskola-komunitatea barnean hartzea eta gaitzeerabat garatu ahal izan dezaten parte hartzeko eta laguntzeko duten ahalmena etorkizun hobea lortzeko.




Garapen Iraunkorrerako Helburuek jomuga espezifiko bat hartzen dute barnean gizarte bidezkoak, bakezaleak eta inklusiboak lortzeko. Helburu horretan funtsezkoa da hezkuntzak betetzen duen zeregina, hau da, desberdintasunari, bidegabekeriari eta bazterkeriari ikusgarritasuna ematea eta herritartasun globalari lotutako gaitasunen garapena sustatzea, indarkeriarik ezan, eskubideen unibertsaltasunean eta berdintasunean oinarrituta.

Jakin ezazu gehiago hemen: www.unicef.es/eus/educa/blog/16-ODS-GIH-gizarte-justu-bakezale-inklusiiboak

HEZKUNTZA EDOZEIN INDARKERIA MOTARI AURRE EGINEZ

Birus baten oso antzera jokatzen du indarkeriak: ikusezin dago gure artean baina, bat batean, eztanda egin eta kalteak eragiten ditu, zenbaitetan erreparatu ezinekoak. Indarkeriak ez die arrazoiei kasu egiten, suntsitzea da bere helburua eta, birus ugari bezala, mutatzeko gai da, kontrolpean dugula usten dugunean. Gainera, birusengatiko infekzio batekin gertatzen den bezala, sendatzea baino hobe da prebenitzea.

Indarkeriaren txertoa berari buruz dugun ezagutza eta hausnarketa da, gudan eta gure ingurunean indarkeria antzemateko dugun gaitasuna, baita indarkeriara jo gabe gatazkak modu baketsu batean ebazten jakiteko dugun gaitasuna ere.



Gida hau prebentzioan oinarritzen da, indarkeriaren aurrean babesteko modu bat den aldetik. Gure ustez beharrezkoa da gizarte guztiak txerto hau jasotzea, pertsona bakoitzak hausnarketa bat egin dezan lortzea, inguratzen gaituen indarkeria ikusteko gai izatea, egunero milaka haurren eragiten duena, askotan gure ikasgeletan eta gure auzoetan.

2013az geroztik, UNICEF lanean ari da munduko kanpaina batean haurren aurkako indarkeriari azkena emateko. #EndViolence bitartez koordinatzen dira sentsibilizazio-ekintzak, intzidentzia, interbentzioa eta prestakuntza, gero

eta pertsona gehiago, haurrak eta nerabeak barne, jabetu daitezten indarkeriak euren bizitzan, osasunean eta haurren hezkuntzan eragiten duen kalteaz. 90 herrialde baino gehiago elkartu dira jadanik kanpaina honetara, kontuan izanik funtsezko zeregina betetzen duela bertan hezkuntzak.

Indarkeriarik gabeko hezkuntza ezinbesteko eskakizuna da gizarte demokratiko batean: ikasgelak ezin daitezke izan ikasleak seguru sentituko ez diren leku bat; eduki didaktikoek ezin dituzte bildu indarkeria babestu edo justifikatuko duten ideiak; ikastetxeek ez dute erasoan jomuga izan behar, eta eskolako bizikidetzak ezin du estres, larritasun edo kezka-iturri izan behar ikasleentzat, irakasleentzat eta familientzat.

Hori guztia ikastetxeetatik baztertu beharko litzateke, eta beharrezkoa da halakoak existitzen direla aitortzea eta errotik erauzteari ekitea. Hala eta guztiz ere, haurren eskubideen hezkuntza bultzatu nahi badugu, urrutiago joaten saiatu behar dugu. Ez da posible indarkeriarik gabeko eskola bat indarkeria nagusi den kultura batean, eta bakea eta bizikidetzaren errespetatzen dituen gizarte bat lortzeko funtsezkoa da hezkuntza. **Hezkuntza izan daiteke denok espero dugun indarkeriaren aurkako txertoa.**

Ondo legoke txerto bat jartzea bezain erraza balitz indarkeriari azkena ematea, bere kontra betiko immunizatuko gaituena. **Proposatzen dugun txertoa ez da hartzeko txerto horietako bat, hartu baino pentsatu egiten baita,** eta aukera ematen digu gure barruan indarkeriarik ezaren bidea aurkitzeko. Ez baitago formula bakar eta unibertsalik bakea eraikitzeko. Aldiz, egunero aurre egiten diegun gatazkek probatzen dute bakean hezteko, ikasteko eta bizitzeko dugun gaitasuna.



"Ez dago bakerako biderik, bakea da bidea." (M. Gandhi)

HAUR HEZKUNTZA

Bizialdiko lehenengo urteak funtsezkoak dira hainbat emozio ulertzeko –haserrea, beldurra edo ezinegona, besteak beste– eta haiek kudeatzen ikasteko. Hezkuntzaren ikuspegitik garrantzi handia du horrek, baldin eta ulertzen badugu, batzuetan, indarkeriak gure emozioak eta beste pertsona batzuenak ulertzeko geure frustrazioan duela sorburua, baita gainerakoekin harreman atseginak ezartzeko ezintasunean ere. Berri ona hauxe da, gaitasun horiek bizialdiaren hasiera-hasieratik hezi daitezkeela, eta horrek aukera emango diela txikienei euren emozioak egokitzeko eta modu baketsu batean elkar bizitzeko. Lagun diezaiegun lehenengo pausoak bakean ematen!

GARATZEKO IDEIAK

- Guztiok dugu lasai eta bakean bizitzeko eskubidea.
- Indarkeria ez da gauzak lortzeko bide onargarria.
- Gu tratatuak izatea nahi dugun bezalaxe tratatu behar ditugu besteak eta errespetuz tratatuak izatea eskatu.
- Arazo bat konpondu ezin dugunean edo gaizki sentitzen bagara, laguntza eska dezakegu.
- Uste osoa izan dezakegu lagun onengan.
- Bakea gure barnean dago.

FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

- Bizikidetzatza
- Zaintza
- Bakea
- Errespetua
- Adiskidetasuna
- Konfiantza
- Enpatia
- Autokonfiantza
- Babesa
- Antzekotasunak eta desberdintasunak
- Autokontrola

Bizialdi osoko ikaskuntza

Oso gazte izanik ere, indarkeria ulertzeko eta bere sorburuetan eta ondorioetan sakontzeko, 6 urtetik beherako haurren artean gerta daiteke indarkeriaren eraginpean egotea edo indarkeriaz jokatzeari besteekin dituzten harremanetan. Adin-tarte horretan oso garrantzitsua da trebetasun sozial jakin batzuen oinarriak finkatzea, baita oinarrizko emozioak antzemateko eta adierazteko trebetasunak ere, frustrazio sentimenduak, haserrealdiak edo kaltearen aurrean erantzun pasiboak saihesteko.



© UNICEF/UN040214



EZAGUTZAK

- Norberaren premiez jabetzea, norbere buruaz jabetzea.
- Bakearekin lotutako emozioak: alaitasuna, maitasuna, lasaitasuna.
- Indarkeriarekin lotutako emozioak: haserrea, beldurra, sufrimendua.



JARRERAK

- Ingurune baketsu bat lortzen lagundu nahi izatea.
- Gainerakoen sentimenduez kezkatzea, enpatia garatzea.
- Gainerakoak errespetatzea.



GAITASUNAK

- Bizikidetzarako oinarrizko trebetasunak.
- Norbere frustrazioa adierazteko gaitasuna indarkeriara jo gabe.
- Laguntza eskatzeko gaitasuna gatazkarik gertatuz gero.
- Indarkeriara jo gabe erlazionatzeko trebetasuna.



IKASGELARAKO JARDUERA

Behin bazen puntu bat *Puntu* izenekoa...



“Punturen” istorioa **marrazki bizidunen ipuin bat da, dibertsitateari buruzkoa**: ikasle txiki bat bakarrik sentitzen da, balio ez duena eta desberdin, bere ikaskide letren aldean. Elkarrekin batera aurkikuntza handi bat egingo dute. “Punturen” istorioaren bideoa ikusi eta dagokion unitate didaktikoa deskargatu dezakezu hemen:

www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/puntua-istorioa-jarduera-haur-hezkuntza



BEROOUND

#EndViolence

Elkartu zaitetz UNICEFen munduko kanpainara indarkeriari azkena emateko. Ospatu ezazu Haurren Eguna zure ikastetxean, bakearen eta tratu onaren aldeko txerto batekin. Jakin ezazu nola 10. eta 11. orrialdeetan.

LEHEN HEZKUNTZA

Haurrak heztea, helburu hartuta haiek indarkeria identifikatzen, indarkeriatik babesten eta beren jokabidean indarkeria saihesten jakitea, lagungarria izango zaie seguru sentituz eta bakea babesteak duen garrantziaz jabetuz hazteko. Lehen Hezkuntzan hausnarketa batzuk eginez has gaitezke: indarkeria zer den, nondik datorren, eta indarkeria prebenitzeko eta saihesteko bete dezakegun zeregina. Hezkuntza-etapa honetan, hain zuzen, lagundu ahal izango diegu ikasleei gatazkaren eta indarkeriaren artean, eta haserrearen eta erasoaren artean bereizten. Funtsezkoa izango da gure gida!

GARATZEKO IDEIAK

- Gatazka, berez, ez da txarra; normala da harremanetan gatazkak eta arazoak izatea.
- Haserrea emozio onargarria da, guztiok haserretzen gara batzuetan, baina ez du eraso berekin ekarri beharrik.
- Indarkeria ez da normala ez eta saihestezina ere; beste irtenbide batzuk har ditzakegu.
- Arazoei irtenbide baketsu bat emateko, ondo ezagutu behar dugu elkar, besteei aditu eta gaizkiulertuak saihestu.
- Guztiok ahalegintzen bagara gatazkei indarkeriara jo gabe irtenbide bat ematen, orduan eraiki ahal izango dugu bakea.
- Bakean bizitzea, eta edozein motako indarkeriatik babestuta, haur eta nerabe guztiek duten eskubide bat da.
- Bakea ez da helburu bat: gauzak egiteko modu bat da.

FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

- Gatazka vs indarkeria
- Haserrea vs eraso
- Bakea eta indarkeriarik eza
- Entzute aktiboa
- Gaizkiulertuak
- Ikuskerak
- Lankidetzak
- Arazoen ebazpena



© UNICEF/UN0146051/Markisz



EZAGUTZAK

- Gatazkaren sorburua ulertzea eta indarkeria noiz bihurtu daitekeen jabetzea.
- Gatazkaren sorburuak eta indarkeriara jo gabe haiek ebazteko moduak identifikatzeko gaitasuna.
- Talde-lana bakea eraikitzeak eta gatazkak ebazteko.
- Eskubideak eta erantzukizunak ulertzea.
- Estereotipoak eta aurreiritziak antzematea.
- Ingurune baketsu batean bizitzearen garrantzia eta indarkeriak sorrarazten duen kaltea.
- Gerrak: eragileak, garapena eta ondorioak.
- Gatazkak gure hurbileko ingurunean: antzekotasunak eta desberdintasunak gerrekin alderatuta.



JARRERAK

- Nork bere burua errespetatzea, nork bere buruaren irudi positiboa izatea, autokontzeptu sendo bat izatea.
- Tolerantzia, gainerakoak onartzea, desberdintasunak errespetatzea.
- Besteen eskubideak eta erantzukizunak errespetatzea.
- Genero-ekitatea.
- Enpatia
- Solidaritatea
- Gatazkak modu baketsu batean ebazteko prozesuetan parte hartzeko motibazioa.
- Tolerantzia besteen adierazpen emozionalen aurrean, nahiz eta haiekin gu ez identifikatu.
- Errespetua eta enpatia indarkeriaren biktimen aurrean, nahiz eta haien zirkunstantziekin eta iritziekin bat ez etorri.
- Eskueran ditugun bideak eta prozedurak erabiltzeko prestasuna indarkeriaren biktimak babesteko.



GAITASUNAK

- Komunikazioa: entzute aktiboa, autoadierazpena, parafraseatzea, beste ikuspegi bat hartzea.
- Asertibitatea.
- Lankidetzan eta talde-lanean aritzeko gaitasuna gatazkak ebazteko.
- Aurrerapausoak ematea nork bere emozioei eta besteenei aurre egiteko.
- Arazoei irtenbidea ematea.
- Beste irtenbide batzuk hartzeko gaitasuna.
- Gatazkak ebazteko trebetasunak.
- Beste pertsona batzuen gatazketan bitartekari izateko gaitasuna.
- Autorregulazioa, kontrol emozionala, gudan eragina duten gatazketan.
- Gatazkaren eta indarkeriaren artean bereizteko gaitasuna.
- Beste haur batzuk babesteko eskubidearen alde mobilizatzea.

#EndViolence

Elkartu zaitetz UNICEFen munduko kanpainara indarkeriari azkena emateko. Ospatu ezazu Haurren Eguna zure ikastetxean, bakearen eta tratu onaren aldeko txerto batekin. Jakin ezazu nola 10. eta 11. orrialdeetan.

IKASGELARAKO JARDUERA

Ikastetxea bake-lekua



Ikasgelan hausnarketa batzuk egitea proposatzen dizugu: guztiok dugun erantzukizuna gure desberdintasunak gainditzeko eta ikasgela eta ikastetxea indarkeriarik gabeko inguruneak izatea lortzeko. Horretarako, "Ametsak" aurkezten dizugu, **marrazki bizidunen bideo** bat, elkarrengandik desberdinak izatea, txarra baino, oso gauza ona dela nabarmentzen duena. Zerk bereizten gaitu eta zertan gara berdinak? Zer gauza positibo lor ditzakegu indarrak batuz gero?

Bideorako eta jarduera didaktikorako sarbidea hemen duzu:

www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/bake-ikastetxea-jarduera-lehen-hezkuntza



BIGARREN HEZKUNTZA

Nerabezaroa aldaketa emozional eta kognitibo handiak gertatzen diren aldia da, eta orduan probatzen dira bizikidetzarako aurretik eskuratutako gaitasunak. Gainera, nerabezaroa funtsezko aldia da printzipio unibertsaletan oinarritutako gaitasun etikoak eta norbere kontzientzia morala garatzeko. Garapenaren etapa honetako ezaugarriek, besteren artean oldarkortasunak edo arauak zalantzan jartzeko joerak, pentsatzera eraman gaitzakete zaila izango dela bizikidetzarako heztearordea, ikasleek inoiz ez dute orain bezainbesteko gaitasunik izan hausnarketa etikoan eta euren irizpideetan oinarritutako iritzia finkatzeko. Aukera ona beraz!

GARATZEKO IDEIAK

- Indarkeria ez da saihestezina: prebenitu, gaitzetsi eta saihestu dezakegu.
- Indarkeriarik ezak etengabeko konpromisoa eta ahalegina eskatzen dizkie norberari, taldeari, komunitateari eta gizarteari.
- Indarkeria nagusi den kultura batean bizi gara, eta hori antzematea da eman beharreko aurreneko pausoa aldaketari ekiteko.
- Arazoak indarkeriara jo gabe konpontzen ikas dezakegu.
- Gatazka bat kudeatzea eta ebaztea ez dira gauza bera.
- Pertsona orok du indarkeriarik gabe eta bakean bizitzeko eskubidea.
- Bakean bizitzeko dugun eskubideak ingurune baketsu bat erakitzeo erantzukizuna eskatzen digu gainera.



© UNICEF/UN050362

FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

- Inklusioa eta esklusioa
- Zintzotasun emozionala
- Estereotipoak eta aurreiritziak
- Asertibitatea
- Bitartekaritza
- Adiskidetzea
- Indarkeriaren igoaldia
- Bake-kultura
- Boterea

Arazoa ikuspegi orokor batetik ulertzeko trebetasunak

Bigarren Hezkuntzan ikaskuntza-zikloa osatu dezakegu: indarkeriari, bakeari eta gatazken ebazpenari lotutako fenomenoak ezagutzetik geure jokabidea ebaluatzeraino, arazoak ulertzetik, irtenbideak aplikatzetik, egoerak aztertzetik edo balioak laburbildu eta barneratzetik igaroz. Etapa honetan, asmoa ez da bakarrik gauza gehiago edo konplexuagoak irakastea, ikaskuntza-zikloa ixtea baizik, esanguratsua izan dadin eta gure ikasleei aukera emateko euren bizialdi osoan zehar ikasten jarraitzeko.



EZAGUTZAK

- Gatazken analisia.
- Bitartekaritza-prozesuak.
- Gizabanakoen eta gizartearen arteko elkarmenpekotasuna ulertzea.
- Gatazka baten dinamikak identifikatzea.
- Indarkeriak gizartearen dituen inplikazioak eta kultura duen eragina.
- Biktimak, biktimarioak eta biktimizazioa.
- Bake-kultura eta indarkeria justifikatzen duten ideologiak.
- Demokraziak eta herritarren partaidetzak bakea babesten betetzen duten zeregina.
- Berreskuratzea eta berreraikitzea: aukerak eta mugak.



JARRERAK

- Adiskidetzea.
- Gizartearen erantzukizuna.
- Justizia- eta berdintasun-sena.
- Estereotipoen ikuspegi kritikoa.
- Gatazkak sakonetik ezagutzeko interesa, "zuria edo beltza" motako jarrerak saihestuz.
- Estereotipoen eta aurreiritziei buruz hausnartzeko prestasuna.
- Ikuspegi kritikoa hedabideetako mezuen aurrean, eta indarkeria edo gatazka irudikatu edo azaltzen duten moduaren aurrean.




GAITASUNAK

- Pentsamendu kritikoa.
- Nagusi diren estereotipoetatik eta aurreiritzietatik kanpo jarduteko gaitasuna.
- Gatazkak modu konstruktibo batean ebaztea.
- Gatazkak prebenitzea.
- Gizartearen bakearen izenean parte hartzea.
- Aldaketarekin bizitzeko gaitasuna.
- Gatazkak ebazteko estrategia eraginkorak aplikatzeko gaitasuna gudan zerikusirik ez duten liskarretan edo gudan eragina duten egoeretan.
- Lidergoa ingurune baketsuen eraikuntza.
- Laguntza-taldeak antolatzea berdinen artean.

#EndViolence

Elkartu zaitez UNICEFen munduko kanpainara indarkeriari azkena emateko. Ospatu ezazu Haurren Eguna zure ikastetxean, bakearen eta tratu onaren aldeko txerto batekin. Jakin ezazu nola 10. eta 11. orrialdeetan.



BEROOUND

IKASGELARAKO JARDUERA

"Ni, neu naiz"




Nork bere identitatea bilatzea eta berrestea kezka nagusietako bat da nerabeentzat. Dena den, prozesu horretan, estereotipoak edo aurreiritziak erabiltzeko joera izan dezakete, euren buruen eta euren ingurunearen ikuspegi argiago bat izateko. Estereotipo horiek, baita positiboak ere, alienagarriak izan daitezke, intolerantzia piztu dezakete eta eskola-giroa hondatu. **Bideo** honek eta ikasgelarako dagokion jarduerak garrantzizko erronka bat aditzera ematen dute: maskarak kentzera ausartzea gainerakoekin erlazionatzen garenean.

Bideorako eta jarduera didaktikorako sarbidea hemen duzu:

www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/ni-neu-naiz-jarduera-bigarren-hezkuntza



TRATU ONAREN TXERTOIA



Indarkeriak, birusek bezala, biktimak besterik ez ditu sorrarazten: guztiok galtzen dugu eztanda egiten duenean. Gainera, epidemiekin gertatzen den bezala, hobe da prebenitzea sendatzea baino. Ikasturte honetan eskola-mobilizazio

bat proposatzen dizuegu. Hala, guztion artean

landuko dugu bakearen eta tratu onaren txerto bat, azaroaren 20an, Haurren Egunean, gure ingurune osoa babesten saiatzeko. Adi, ordea, oso txerto berezia baita: txertoa, hartu baino, pentsatu egiten da. Ezagutu ezazu!

1 PAUSOA. Irudikatu ezazue zuen indarkeria-birusa

Indarkeria-birusa ez da edozein birus bezalakoa: gure beldurrez elikatzen da. Hala, irudi bat emango diogu, kezkatzen gaituena ondoen islatzeko. www.unicef.es/eus/educa/tratuona web orrian PDF bat duzue zuen birus izugarriari itxura bat emateko adibideekin. Askatu zuen irudimena eta erantsi irudiari birusek izaten ez dituzten osagaiak: adarrak, ezkatak, hatzaparrak, begi ikaragarriak... Zergatik ez? Argazkiak, marrazkiak, prentsa-ebakinak edo hitzak gehitu ditzakezue, zuen ingurunetik ezabatu nahi dituzuen indarkeria motak adierazten dituztenak. Birus ikaragarri horri aurka egiteko merezi du taldean lan egiteak!

2 PAUSOA. Jarri iezaiozue izen bat

Ez Xabi, ez Miren, ezta Iñigo ere: beldurgarria izan behar du izenak. Pertsona jakin bat edo talde jakin bat errazago eraso dezake indarkeria-birus batek. Bada bere iritzia adieraztea lortzen ez duen jenderik? *Isil sekularis* epidemiaren bat egon daiteke beharbada. Bada baztertua sentitzen den talderik? Baliteke *Diskrimina baztergarria* agerraldi bat izatea. Sare sozialak leku desatsegin bilakatu dira? *Digit abusagarria* baten erasoagatik izan daiteke. Ez da beharrezkoa birusen izendapen zientifikoari jarraitzea: desagertzea nahi duzuen hori ondoen deskribatuko duten hitzak aurkitzea da kontua.

3 PAUSOA. Isolatu birusa

"Isolatu" zuen indarkeria-birusa mural batean, ikastetxearen erdian. Mural hori izango da txertoa lantzeko zuen Petri-ren plaka, bertan osagaiak gehitzeko. Gogoan izan: txertoa eraginkorra izateko, indarkeria-birusak ezin du desagertu: gauza onez inguratuta eta haiek ahulduta geratu behar du; horrela, txertoa jasotzen duenak antzeman eta berari buruz pentsa dezake.





www.unicef.es/eus/educa/tratuona

4 PAUSOA. Diseinatu itzazue txertoaren osagaiak

Bakarka edo taldeetan, fitxak prestatzen joango gara, zuen indarkeria-birusari aurka egiteko behar diren osagaiak deskribatuko dituztenak.

Deskribatu fitxa bakoitzean osagaia (adibidez: "errespetua",

"adiskidetasuna" edo "entzutea"), bere printzipio aktiboak, posologia eta erabiltzeko gomendioak. Erantsi fitxa guztiak muralean, indarkeria-birusa inguratuz ahulduta amaitu dezan.



BANG

5 PAUSOA.

Badugu txertoa!

Muralean dago orain txertoa, fabrikatzeko eta banatzeko prest. Orain jarriko diozue izena eta finkatuko dituzue denon artean indarkeriarik ezaren 5 konpromiso taldearentzat eta 3 eskakizun haurren eskubideak babesteko erantzukizuna dutenei (ikastetxeko zuzendaritza, udala, hedabideak, gobernu... izan daiteke).

6 PAUSOA. Indarkeriarik ezaren aldeko zuen manifestua

Deskargatu zuen manifestu pertsonalizatua adostu izan dituzuen konpromisoak eta eskakizunak adieraziz, eta sinatu ezazue denek, baliozkoa izan dadin. Ikusteko moduan dagoen ikasgelako leku batean ipini dezakezue manifestua, ikasturte osoan zehar gogoan izateko eta betetzeko. Gainera, eskakizunak egin dizkiezuen pertsonaei edo instituzioei aurkeztu ahal izango diezue, indarkeriaren aurrean haur guztiak babestuta egoteko eskubidea defendatzeko modu bat baita.

7 PAUSOA.

Txertaketa-kanpainari hasiera emango diogu

Azaroaren 20a, Haurren Eguna, aukerako eguna da bakearen aldeko txertoarentzat! Manifestuarekin batera, tiritu pertsonalizatuak dituzue zuen txertoaren izenarekin, eta zuen kanpainan txertatuko dituzuen pertsona guztien artean banatu ditzakezue. Gogoan izan hau ez dela hartzen den txerto bat, pentsatzen dena baizik: kanpainan, garrantzizkoena da jasotzen dutenei azaltzea zein den gure indarkeria-birusa eta zein bake-formula diseinatu dugun birus hori desagerrarazteko.

8 PAUSOA. Mundu guztiak ezagutu dezala zuen txertoa!

Eman ezagutzera zuen txertoa hezkuntza-komunitate osoari: ikastetxeko irratian, zuen blogean eta sare sozialetan ezagutzera eman dezakezue, edo www.unicef.es/eus/educa/bloga blogean argitaratu. Baita harremanetan jarri ere zuen udalerriko hedabideekin! Jakin ezazu nola, hemen: www.unicef.es/educa/blog/ difunde-tu-actividad




BABES-INGURUNEAK ETA PERTSONA KONTZIENTEAK: BAKE-KULTURA ERAIKITZEN

Hezkuntza-komunitateak garrantzizko erronka bat du: nabarmentzea indarkeriaren adierazpide desberdinak arazo bat direla, eskola nahi dugun babes-ingurunea izatea eragozten duena, bertako kide guztiek hezkuntza-eskubidea gauzatu ahal izango duten lekua, euren ahalmena goren mailara helduko den lekua. Indarkeriari ikusgarritasuna emanez gero bakarrik izango gara ekiteko gai.

Indarkeriara hurbiltzen saiatu behar dugu, funtsezko hiru alderdi kontuan hartuta: biktimek jasaten dituzten eskubide-uraketak, sorrarazten dizkien kalte psikologikoak eta ondorioz ezartzen diren botere-harreman eta -abusuak. Indarkeria prebenitzeko lotura afektibo seguruak eta zintzoak sustatu behar dira, eta herritarren etikari eta bestea eskubidedun subjektu gisa aintzatesteari lotuta egongo da maitasuna. (Horno, P.; Ferreres, A. (2017) *Los municipios ante la violencia entre niños, niñas y adolescentes*, UNICEF Espainiako Batzordea)

Beharrezkoa da indarkeria iraunarazten duten jarrerak, jokabideak eta kontrabaliak antzemateko gure arreta- eta kontzientzia-maila goratzea, eta hezkuntza-eremuko neurriekin haiek indargabetzea. Bi adibide lirateke intolerantzia eta hedabideetako indarkeria.



Gure inguruan intolerantziaren sintomak antzematea

Ikastetxean jokabide horietan arreta jartzen badugu, bullying egoerak eragotzi ditzakegu arazo bilakatu aurretik. Ingurunea behatzea da prebentzioaren giltzarria ekin ahal izateko:

- Hitz egiteko modua: besteei zuzendutako hizkuntza iraingarria, gutxiesgarria edo baztertzalea funtsezko adierazle bat da. Ez da onargarria ikastetxearen barruan beste talde batzuk gutxiestea, iraintzea edo haiei gizatasuna kentzea (neskak, ijitoak, immigranteak, LGBTI kolektiboa, txikiak...)
- Beste talde batzuei zuzendutako estereotipo gutxiesgarriak erabiltzea eta aurreiritziak.
- Gustu txarreko burlak eta bromak.
- Jomuga erraza diren biktimak salatzea, "turko-buruak".
- Diskriminazioa jardueretan eta jokoetan.
- Ostrazismoa edo "zokoratzea".
- Zirikatzea eta beldurraraztea.
- Sinboloak profanatzea eta sinesmen erlijiosoak barregarri uztea.
- Taldetik botatzea, baztertzea eta segregazioa.


Iturria: Reardon, B.A., La tolerancia: umbral de la paz. Santillana y UNESCO, 1999



Hedabideetako indarkeriaren ondorioak

Hedabideetako indarkeriak haurrengan duen eragina polemika pizten duen gaia da, eta ez dago erantzun bakar eta argi bat. Dena den, badira ebidentziak haurrak indarkeriaren errepresentazioen eraginpean egoteak dakartzan ondorio emozionalei, kognitiboari eta jokabidezkoari buruzkoak:

Sentsibilizazioa galtzea: ondorio emozional horren funtzioa moldagarria da. Indarkeriaren eraginpean zenbat eta denbora gehiago egon, orduan eta gutxiago eragiten digu emozionalki, eta nahasi egiten digu antzematen dugun indarkeriaren larritasun-mailaren arabera emozioak erregulatzeko dugun gaitasuna.



Kultibo-efektua: ondorio kognitibo bat da. Hedabideek indarkeria behin eta berriro ikusgai jartzen dutenean, horrek eraman gaitzake oker pentsatzera segurtasunik ez dagoen leku bat dela mundua, arriskuez betea, eta horrek sustatu egiten du haurrek beldurrak eta segurtasun falta sentitzea, baita helduen aldetik haiek gehiegi babesteko joera ere.

Modelatzea: jokabidezko efektu bat da, ereduak –egiazkoak nahiz fikziozkoak– behatuz jokabideak ikasteko gaitasuna baitugu pertsonen. Modelatzean edo ereduak egitean, eragina dute egoeraren aldagai batzuek. Beraz, haurrek eta nerabeek kontsumitzen dituzten indarkeriazko edukietan, arreta berezia jarri behar da biltzen dituzten gako narratibo jakin batzuetan. Ezagutu itzazu hemen: www.educa.es/eus/educa/blog/biolentzia-edukiak



Iborra, I.-tik egokitua: Cómo informar sobre infancia y violencia. Centro Reina Sofía, 2007

Adi!: indarkeria ikusezinak

Indarkeriaz dugun irudi tradizionala indarkeria fisikoa da, agerikoa eta odoltsua. Borrokekin, hilketekin, gerrekin edo tratu txarrekin lotu ohi dugun indarkeria-mota da. Hala ere, batzuetan, eraso horien sustraiak indarkeria ikusezin batean daude errotuta,

kulturalak eta gizarteak onartuak izan ohi dira, baita indarkeria fisikoaaren agerraldien haztegi ere. Adibide bat, gizarteak gero eta gehiago antzematen duena, genero-indarkeria da, kulturalki emakumearen aurkako diskriminazioari lotua. Neska-mutillak

benetako berdintasunean hezten ez baditugu, euren gaitasunetan, jarreretan, aukeretan, ahalmenetan eta eskubideetan desberdintasunik ez dagoela sinetsiz, haien sexua, erlijioa, ideologia, larruazalaren kolorea edo orientazioa edozein izanik ere, inoiz ez dugu lortuko azkena ematea sexismoak, xenofobiak, homofobiak eta beste diskriminazio modu batzuek sorrarazitako oinazeari eta heriotzen kopuru kezkaragiei.



Indarkeriari hitzak jartzeak lagundu egiten digu berau identifikatzen: Ezagutu itzazu glosarioan indarkeriarekin lotura duten terminoak www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/glosarioa-bakea-biolentzia-eza

Hausnarketa: Indarkeria-kultura batean ari gara hezten?

Gure gizarteetan formalki gaitzesten dugu indarkeria baina bada beste kontraesan argi bat; hau da, normalizat, edo gutxienez, saihestezintzat ikusten jarraitzen dugu gatazkei ematen zaien indarkeriazko erantzuna. Indarkeriaren aurkako gure borrokan, prebentzioan baino zigorrean jarri ohi dugu arreta, eta justifikatuta egon arren, berez, indarkeria modu bat da zigorra. **Hezkuntzan kontraesanak daudenean hezkuntza-eremuko helburuen eta jardunbideen artean, espero genituenak ez bezalako gauzak ikas ditzaizkete ikasleek.**

Ba al dakigu identifikatzen indarkeriaren eta erasoaren modu desberdinak? Gure gertuko inguruneak adibideak jartzeko gai al gara?

Nola identifikatu indarkeriaren eta erasoaren moduak?

Beren izaeragatik:	☐ fisikoa ☐ hitzezkoa ☐ erlazionala
Beren helburuagatik:	☐ areriotzua ☐ instrumentala
Beren kausagatik:	☐ erreaktiboa ☐ proaktiboa
Beren plangintzagatik:	☐ oldarkorra ☐ aurrez pentsatua
Beren ondorioengatik:	☐ zuzena ☐ zeharkakoa
Ekiten duten moduagatik:	☐ aktiboa ☐ pasiboa
Beren ikusgarritasunagatik:	☐ irekia ☐ estalia
Beren arrazoiengatik:	☐ bidezkoa ☐ bidegabekoa
Denboran duten ondorioengatik:	☐ berehalakoa ☐ geroratu
Beren eragilearengatik:	☐ pertsona ☐ egoera
Kaltearen hedaduragatik:	☐ fokatua ☐ kolateral

INDARKERARIK GABEKO IKASTETXE BATERANTZ: HAURREN ESKUBIDEEN ESPARRUA

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak aintzatesten du haur eta nerabe orok duela edozein indarkeriatik gabe bizitzeko eskubidea. Eskubide honek betebeharrak batzuk eskatzen dizkie helduei hurrekin egunero duten tratuan, baita hurrek beregain hartu beharreko erantzukizun bat ere. Hala, erantzukizun horretan hezteko da Haurren Eskubideen eta Herritartasun Globalaren Hezkuntzaren eskakizunetako bat, eta zeregin bikoitz bat betetzea eskatzen die ikastetxeei: batetik, ikastetxeak haurrentzako

indarkeriarik eta arriskurik gabeko lekuak izateko legezko betebeharra; bestetik, bakea bultzatuko duten didaktikak eta bizikidetza-ereduak sustatzeko hezkuntza-eremuak duen erantzukizuna.

Nola egiten diogu aurre ikastetxetik erronka horri?
Analisi-proposamen bat aurkezten dizugu, funtsezko lau alderdi eta hiru orokortasun-maila biltzen dituen: zehatzenetatik estrategikoenera.

JARDUTE-EREMUA

Norbanakoa. Bakea lortzeko pertsona bakoitzaren jarreretan, jokabideetan eta gaitasunetan aldaketak behar direla adierazten du.

Komunitatea. Hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza proposatzen du, pertsona bakoitzaren garapena ahalbidetuko duen bizikidetza-ingurune bati bide emateko.

Gizartea. Aldaketa estrukturalak eta inguruneek bakearen hedadura indibidualak eta komunitarioak bezainbesteko garrantzia dutela hartzen du kontuan.

ARLOA

Ikasgela. Gatazkak ebazteko gaitasunak, balioen hezkuntza edo talde-lana bezalako ikaskuntzak azpimarratzen ditu.

IHP. Ikasgelako lana beharrezkotzat jotzen du baina nahikoa ez, ordea, indarkeriarik gabeko hezkuntza integral bat lortzeko. Eskola-antolamenduaren elementuak eta hezkuntza-komunitate osoaren konpromisoa ezinbestekoak dira hori lortzeko.

Hezkuntza-politika. Ekitatea azpimarratzen du hezkuntzan, alderdi hauetan: sarbidea, kalitatea, baliabideen birbanaketa, irakaskuntza/ikaskuntzako emaitzak edo metodoak.

IKUSPEGIA

Curriculumarena. Lehenaldiko eta oraingo gatazkak eta gerrak aztertzen ditu hezkuntza-dukien barruan, eta hausnarketa bat proposatzen du kausei eta efektuei buruz.

Axiologikoa. Indarkeriazko jokabideen azpian dauden kontrabaliok aztertzen ditu, giza eskubideen, bakearen eta herritartasun globalaren errespetuan oinarritutako balioak sustatzeko.

Kritikoa. Justizia sozialaren ikuspegian oinarritzen da gatazkan dauden aldeek ekitatea lortzeko erabakiak hartzean, identitate desberdinen aintzatespena sustatzeko eta injustiziari buruzko ikuskera desberdinak adosteko.

EGITURA

Azpiegitura. Eskola-azpiegiturretan jartzen du arreta: bertako segurtasuna, talde desberdinetara egokitzen den modua, ikasle guztien sarbide-bermeak...

Egiturarena. Ikastetxea da hezkuntza-garapenean oinarria, ikastetxearen barruan eta hurbileko ingurune komunitarioan bizikidetza baketsu bat eraiki ahal izateko.

Egituraz gaindikoa. Ikastetxea kokatzen den egitura sozialetan jartzen du arreta.



Gaizkiulertuaren gurpila: **Geldiarazi ezazu!**

Gaizkiulertua da pertsonen eta taldeen arteko gatazka ugariren oinarria, baita herrialdeen artean ere. Beharrezkoa da gaizkiulertu batean sortzen diren pertzepzioen eta portaeren zikloa ezagutzea berau saihestu edo eragozteko. Gure ikasleei laguntzen diegunean gaitasun hori garatzen, haiei ahalmen handiko tresna bat ematen ari gara euren artean modu baketsu batean komunikatzeko, negoziatzeko eta bitartekaritza egiteko.

Nola irakasten du bakerako hezten duen irakasle batek?

- Bakeak duen eragina neurtzen du jardunbide-eredutzat hartuta (role model)
- Teknika egokiak eskuratu eta erabiltzen ditu harreman baketsuak sustatzeko eta gatazkak ebazteko
- Arazoei konponbide bat emateko sormenezko erantzunak sustatzen ditu
- Lankidetzeta eta motibazioa bultzatzen dituzten jarduerak proposatzen ditu, lorpen pertsonalak eta ekimena sustatzen dituztenak, jokabide erasokorren eta oso lehiakorren ordeztu
- Animatu egiten ditu ikasleak eta haien familiak erabakietan eta programen plangintzan parte hartzera
- Komunitatearen baliabideak erabiltzen ditu ikaskuntza-programak garatzeko eta jabetu egiten da komunitatearen premiez eta pertzepzioez
- Hausnarketa kritikoa pizten du eta ikuspegi desberdinak estimatzen ditu, eta aldi berean adi egoten da arazo gatazkatsuekiko jarreraren aurrean
- Dibertsitate kulturala balioesten du eta kultura desberdinak ulertzeko eta bizitzeko aukerak eskaintzen ditu

Informazio gehiago: J. Buckland, A. Jones eta Y. Duncan: *Peace education: the Aotearoa/New Zealand way*, Teaching Resource Centre, Auckland, College of Education, 1989



© UNICEF/UN0219181/Bell

Gatazken soluzio-mailak

Gatazka bat kudeatzea eta gatazka ebaztea ez dira gauza bera, gauza bera ez diren bezala gatazkaren aurrean erreakzionatzea eta gatazkari aurrea hartzea proaktiboki prebenitu ahal izateko. Gatazka baten aurrean eskueran ditugun metodoen hierarkia ezagutzeak lagundu egiten digu hobeto ezagutzen zergatik diren konponbide batzuk azkarragoak eta beste batzuk iraunkorragoak.



INDARRA	Gatazka bat indarrez konpontzea, berez, indarkeria modu bat da, aldeetako baten iritzia inposatu egiten baitira beste aldearen iritzien gainetik. Gatazkak ebazteko horrelako metodoak soluzio-maila baxuenean daude.	Bi talde eztabaidan ari dira jolastokiko gune jakin bat erabili nahi dutelako, eta talde indartsuenak edo adin handiagoa dutenenak "irabazten" du.
EPAIA	Horrelako metodoetan, bi aldeetatik kanpo dagoen hirugarren batek erabakitzen du soluzioa, batzuetan sistema legegile edo araugile batean oinarrituta.	Ikastetxeko irakasle batek edo zuzendariak erabaki bat hartzen du, eta behartzeko duten botereaz baliatzen dira horretarako, aldeei erabaki hori betearazteko.
ARBITRAJEA	Arbitraje-metodoetan, bi aldeek adosten dute norbait aukeratzea bien artean arbitratzeko eta hartutako erabakia betetzeko.	Bi taldeek erabakitzen dute neutrala den norbait bere iritzia galdetzea, eta onartu egiten dute haren erabakia, ados ez badaude ere.
NEGOZIAZIOA	Bi aldeek parte hartzen dute euren arteko desadostasunen irtenbidean. Hala ere, sarritan, aldeetako baten benetako boterearen edo botere sinbolikoaren menpe egon ohi da soluzioa, abantailan dagoenaren menpe, alegia.	Bi taldeak jartzen dira ados bozketa bat egiteko, eta talde handienak irabazten du.
BITARTEKARITZA	Erraztutako negoziazioa da bitartekaritza. Gatazkan bitartekari denak ez du epaitzen, irtenbidea erraztu baizik, aldeen borondatearen arabera.	Bitartekari izango den ikasle-talde batek gidatzen ditu bi taldeak euren negoziazioan, bidezkoa eta ekitatiboa izan dadin, eta teknikak eta ideiak ematen dizkie horretarako.
EBAZPENA	Harremanak era konstruktibo batean aldatzea lortzen du ebazpenak. Horrek ez du esan nahi emozio guztiak konpondu direnik, baina arazoa, berez, konpondu egiten da.	Aurreko bitartekaritzaren bidez, gatazkan dauden taldeek arau eta jarraibide batzuk finkatzen dituzte, gerora begira beteko dituztenak.
ADISKIDETZEA	Soluzio iraunkorra lortzen denean sortzen da adiskidetasuna. Adiskidetasun horretan ez dago gaitzondo-seinalerik, "irabazi / irabazi" izan baita irtenbidea; hortaz, bi aldeak sentitzen dira baikor emaitzaren aurrean.	Bi taldeek ulertu egiten dute azkenean beste aldearen jarrera, eta formalki onartuak izan direnak baino irtenbide gehiago emateko eskaintzen dira.
ALDAKETA	Elkarren arteko partaidetza-maila altuena da. Gatazkaren konponbidea bi aldeen erabaki kontziente batetik abiatzen da, harreman berriak eta hobeak eraikitzeko, alegia.	Bizikidetzako beste arazo batzuk konpontzeko balio izan du gatazkak, edo beste egoera batzuetara eraman daiteke.


Benetako konponbidearen bila!

Arazo baten konponbideek, onak eta iraunkorrak izan daitezen, ondoko ezaugarriak bete behar dituzte. **Konponbide orok izan behar du:**

ERREALISTA ERAGINKORRA
ONARGARRIA LOGIKOA

Bakea oreka da: hezi gaitezen asertibitatean

Irakasle garen aldetik prest egon behar dugu portaera jakin batzuk antzemateko, indarkeria berekin ekar dezaketen dinamikez ohartarazten digutenak. Batzuetan, nahastu egin ditzakegu agresibitatea eta lidergoa edo independentzia, baita otzantasuna eta adikortasuna edo diziiplina, konturatu gabe erdibidean, hau da, asertibitatean dagoela bakean elkar bizitzeko eta gainerakoen eskubideak errespetatzeko aukera.



Gida azkarra bitartekarientzat:

6 pauso arazoak konpontzeko

1. Zer lortu nahi duzu? Gatazkan dauden bi aldeek izan beharko lukete aukera nahi dutena esateko, beste aldeari errua bota gabe edo salatu gabe.

2. Zein da arazoa?

Bi aldeek iritsi behar dute akordio batera arazoa benetan zein den adosteko. Gauza desberdinei buruz eztabaidan ari badira, edo gauza beraren alderdi desberdinei buruz, ezinezkoa izango da bi aldeak akordio batera iristea.

3. Zenbat konponbide aurki ditzakegu?

Beharrezkoa da bi aldeek ahalik eta konponbide gehienak proposatzea, konponbide onena aurkitu ahal izateko eta sortzen den aurrenekoari ez heltzeko.

4. Ondo iruditzen zaizu konponbide hau?

Bi aldeek aztertu behar dituzte konponbide posibleak eta bietako batentzat onartezinak diren horiek baztertu.

5. Zein litzateke konponbide onena?

Alde onak eta txarrak aztertu ondoren, bi aldeek adosten dute zein litzatekeen bientzako konponbide onena.

6. Konpondu da arazoa? Denbora baten ondoren, ziurtatu ezazue hartutako erabakia benetan funtzionatzen ari dela.

FUNTSEZKO GALDERAK

Garapenerako hezkuntzaren funtsezko bost kontzeptuak lagungarriak izango zaizkigu indarkeria ezari buruz dugun ikuspegia aldaraziko diguten hausnarketak sustatzeko.

Justizia soziala

- Injustiziak sorrarazten du indarkeria edo indarkeriak sorrarazten du injustizia?
- Zer da indarkeria estrukturala? Nola emango diogu azkena?
- Zer desberdintasun dago justua izatearen eta justizia ekartzearen artean?
- Zer da garrantzitsuagoa, indarkeria prebenitzea edo zigortzea?
- Egokia da indarkeria eragozteko indarkeriaz baliatuta?
- Noiz uste duzu zilegi dela indarkeria?

Interdependentzia

- Nola geldiaraziko zenuke indarkeriaren goraldia?
- Eragina dute gudan beste herrialde batzuetako gatazka armatuek eta gerrek?
- Zer ondorio ekonomiko, sozial eta politiko izan ditzake gerra batek?
- Norentzat dira gerrak onuragarri?

Irudiak eta ikuskerak

- Zer irudi dugu jende bortitzaz?
- Zer irudi dugu jende bakezaleaz?
- Uste duzu badagoela "hein ertain" egoki bat indarkerian?
- Zein eragin dute estereotipo sozialek indarkeria justifikatzean?

Gatazken ebazpena

- Zure ustez zein interes-gatazka sorrarazten dituzte indarkeriaren igoaldiek?
- Zein da zure ustez emozioek betetzen duten zeregina gatazken ebazpen baketsuan edo erasokorrean?
- Zertan dira berdinak eta desberdinak zure inguruneko gerrak eta gatazkak?
- Zure ustez gertuko gatazka txikiak baino errazagoa dirudi urrutiko gerrak konpontzeak?
- Zure ustez akordioetara iritsi daiteke guztion onurarako? Nola egingo zenuke?

Aldaketa eta etorkizuna

- Zerk uste duzu aldatzen duela gehiago historia: gerrek edo asmakuntza zientifikoek, arteak eta giza garapenak?
- Nola nahiko zenuke idatzia egotea etorkizuneko historia: gerrekin edo aurrerapen zientifiko eta kulturekin?
- Ezabatu lehenaldiko gerra bat: Nolako litzateke oraina? Okerragoa izango litzateke zure ustez?
- Ezabatu oraingo gerra bat: Nolako espero duzu izatea etorkizuna?
- Munduan zer etorkizun alternatibo bururatzen zaizkizu indarkeriarik eta gerrarik gabe?

#EndViolence

MILA MILIOI

haurrek jasan zuten indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa 2017an.

Hilketa da nerabeen heriotzaren bost eragile nagusietako bat



Hilketen biktimen
%80
mutil adingabeak dira



4 haurretatik 1ek
jasaten ditu txar fisikoak



la **5 neskatatik 1ek** jasaten ditu sexu-abusuak

GATAZKA AHAZTUAK ETA BAKEA AHAZTUTA



Batzuetan, badirudi **munduko historia gertatu diren gerren historia dela neurri handi batean**. Lehenaldiko garai jakin batean pentsatzen badugu, gogora etortzen zaizkigu garai hartako inperioak, guduak, iraultzak, eta akordioak eta itunak, orain ezagutzen ditugun herrialdeak itxuratzen joan zirenak, alegia. **Historian protagonismo txikiagoa dute gizarte baketsuenek edo gatazka beliko gutxiagotan parte hartu dutenek.**

Eta zer gertatzen da gaur egun? Berri gehienek gatazka politikoen edo indarkeria modu desberdinen egoerak islatzen badituzte ere, ez dirudi berri asko dagoenik gerrei buruz. Horrek esan nahi du onartzea "berriak ez egoteak berri ona dela"? Zoritxarrez, ez: **orain munduan jende gehienak ez daki ezertxo ere garatzen ari diren gerra eta gatazka armatu ugariren inguruan**; ez dira albistegietan agertzen, eta ez dira historiako liburuetan agertuko. "Gatazka ahaztuak" deitze zaie. Baina albistegietan gatazka horiek ahaztuta izateak ez du esan nahi erakunde humanitarioek ahazten dituztenik, adibidez: **UNICEFek larrialdietako programak garatzen ditu gaur egun gatazka armatuek erasandako herrialde guztietan.**

SAHEL

Sahel-eko herrialde batzuk Boko Haram talde terroristaren indarkeriak erasaten ditu. Txad lakuaren inguruan bakarrik, dagoeneko 2,5 milioi pertsona baino gehiago daude lekualdatuta edo errefuxiatuta, indarkeriaren ondorioz. UNICEFek sendotu egin ditu bere programak Niger, Nigeria, Txad, Mali edo Burkina Faso herrialdeetan, krisi horrek erasandako milioika haurren premiei erantzuteko.



© UNICEF/Chad/2017/Bahaji

© UNICEF



ERTAFRIKAKO ERREPUBLIKA

Gatazkak urteetan zehar iraun ondoren, Ertafrikako Errepublikan indarkeria eta populazioaren lekualdaketa arrasto emozionalak eta psikologikoak uzten ari dira herrialdeko haurrengan, eta zaila da arrasto horiek ezabatzea. UNICEFek, larrialdietako bere programen barruan, lanean dihardu haur eta nerabeentzako leku seguruak sortzen, beren traumak gainditu ahal izateko.

SIRIA


UNICEF Siriako haurren alde ari da lanean, bai herrialdearen barruan eta baita herrialdetik ihes egin duten milioika haur babesten ere, orain errefuxiatu gisa bizi direnak ingurueta herrialdeetan edo Europan.



© UNICEF/UN0188072/Fuad

YEMEN

Yemen 2015etik dago gerran eta, hala ere, ia ez dugu berrik gatazkaren sorburuei, bere garapenari eta bere ondorioei buruz. 3 milioi haur baino gehiago jaio dira han areriotasunak hasi zirenetik, eta 4,5 milioi ikasle baino gehiagoren hezkuntza arrisku larrian da orain. UNICEF herrialde osoan ari da lanean haurrek hainbat arlotan (osasuna, elikadura, ura, higieenea eta saneamendua, babeseta hezkuntza) jaso ahal izan dezaten larrialdietako laguntza.



XXI. mendea hasi zenean gerra asko zeuden, ordurako milaka hildako eraginda zituztenak. Mende honen lehenengo hamarkadatan ez dira gauzak hobetu, eta hainbat gatazka armatu (matxinadak, gerrillak, diplomazia-krisialdiak) milioika haurren bizitza triskatzen ari dira, lapurtzen ari zaizkie familia, etxebizitza, eskubideak eta haurtzarora bera. Grafikoa ikus ditzakegu mende honetako gatazka ezagun eta ezezagun batzuk.

NIGERRERAKO TANTAK

Tanta-lasterketetan 2008-2009 ikasturtetik ari dira era guztietako ikastetxeak elkartzen baterako helburu hau lortzeko: Nigerreko haurren eskubideak uraren bitartez gauzatzea. Eskerrik asko lasterketa bat antolatu duzuen guztioi eta izan dituzuen lorpenengatik zorionak!



Antolatu ezazu zure ikastetxean Nigerrerao Tantak lasterketa bat eta lagundu UNICEFi programak garatzen jarrai dezan, Nigerreko haurrek euren eskubideak betetzen direla ikus dezaten. Tanta bakoitzak balio du!

JAR EZAZU ZURE TANTA!

Parte hartu 2018-2019 lasterketetan: eska itzazu dortsalak zure ikastetxerako www.unicef.es/eus/educa/nigerrerao-tantak web orrian



Hezkuntzarako eskubidea

Mariama Mamane hezkuntzarako sarbideak markatzen duen desberdintasunaren adibide bat da. Nigerreko ingeniari honek 27 urte ditu eta Niger ibaia garbitzeko soluzioak ikertzen ari da orain; ur-hiazintoaren izurriari azkena ematen ari zaio ibai horretan, eta aldi berean ongarri naturala eta energia jasangarria sortzea lortzen ari da. UNICEFek proiektuak garatzen ditu Nigerreko hezkuntzan oraindik dagoen belaunaldi arteko arraila ezabatzeko, bereziki bigarren hezkuntzatik aurrera. Eskoletan ura eta saneamendua izatea funtsezkoa da helburu hori lortzeko.

DENBORALDI BERRIA

FREDO FOX-EN ABENTURAK



Ezagutu ezazu Fredo Foxen Abenturen denboraldi berrian beste haur batzuen eskubideen alde ikasgelatik egin daitekeen guztia. Fredok elkarriketa bat eskatu dio bitartekaritzan, solidaritatean, lankidetzan, haurren eskubideetan edo 2030 Agendan aditua den jendeari. Eta gutxi batzuek dituzte 18 urte baino gehiago!

Bideo horiek ideia onez beteta daude. Hala, ideia horiek zure ikasleak motibatu ditzakete hainbat proiektutan aurrerapausoak emateko, besteren artean, ikasgela solidario bat sortzeko, emozioen bitartez garapen iraunkorrerako helburuak lantzeko, edo parekideen artean bitartekaritza-taldeak martxan jartzeko. Irakasleentzako ideiak ere aurkituko dituzu: Animatzen zara munduko ikasbiderik luzeenean parte hartzera?

**Fredo Foxen
abenturen denboraldi
hau eta aurrekoak
ere dituzu hemen:
unicef.es/educa/fredo-fox.
Ikus itzazu!**



GIZA ESKUBIDEETARAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAKO ARGITALPENAK




BABESAREN KOADERNOA. Gure ikastetxea haurrak benetan babesten ditugun ingurune bilakatzeko gai izan bagara bakarrik da posible indarkeriarik gabeko hezkuntza. Gida honek gakoak eskaintzen ditu gure ikasleak erasan ditzaketen lau babes-arazoren aurrean: bullyinga, tratu txarra, sexu-abusua eta online arriskuak, prebentzioaren eta detekzio goiztiarraren alde apustu eginez. Gainera, koadernoak gidatu egiten gaitu jarduteko protokoloak lantzeko garaian, halako indarkeria moduen aurrean.

www.unicef.es/educa/biblioteca/cuaderno-de-proteccion-infantil



PARTAIDETZAREN KOADERNOA. Eskola-komunitate osoak, baita ikasleek ere, erabakietan parte hartzeak bizikidetzak ez ezik ikastetxeko eguneroko bizitzako funtsezko beste alderdi asko ere hobetzen ditu. Ikastetxeak partaidetzarekin hartua duen konpromisoari esker, hiri demokratiko txiki bat bilakatzen da eskola. Hala, eraginkortasunez funtzionatzen du eta kohesio soziala dago berdinen artean, baita bertan elkar bizi diren belaunaldi desberdinen artean ere.

www.unicef.es/educa/biblioteca/cuaderno-de-participacion-infantil



CURRÍCULO-INTEGRAZIOKO KOADERNOA. Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenetik eratorritako erantzukizunetako bat da haur eta nerabe guztiek euren eskubideak ezagutu eta ulertu ditzaten lortzea, eskubide horiek erabili eta defendatu ahal izan ditzaten. Koaderno honek gidak eta ideiak eskaintzen ditu haurren eskubideak curriculumean integratzeko, eduki puntual gisa ez ezik, gure ikasleen ahalmen osoa garatzeko, eta ikasteko modu gisa ere. www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/curriculum-integrador-koadernoa-eskubideetan-oinarritutako-hezkuntza



ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZAKO AUTOEBALUAZIOKO GIDA. Gida honek ahalbidetu egiten die ikastetxeei taldean autoebaluazio bat eta hasierako diagnostiko bat egiteko prozesua abian jartzea, haurren eskubideak eskola-eremuan gauzatzeko funtsezko alderdietako batzuei buruz. Autoebaluazioaren helburua da eskolan edo institutuan aurrera eramaten diren politikei eta praktikei buruzko hausnarketa bat egitea, giza eskubideetarako hezkuntzaren proiektu integral baterako oinarri gisa balio izango duena. www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/eskubideetarako-hezkuntzako-autoebaluazioko-gida

Zure ikastetxeak badu giza eskubideetarako hezkuntzako proiektu bat UNICEFen aintzatespena lortu ahal izatea gustatuko litzaizukeena? Ezagutu itzazu aintzatespen hori dagoeneko lortu duten ikastetxeak eta jakin ezazu nola aurkeztu zure ikastetxearen kandidatura datorren ikasturteko deialdirako: www.unicef.es/educa/centros-referentes



CREC: HAZI, ERANTZUKIZUNA HARTU ETA SORTU. Eskubideetarako Hezkuntzako esku-liburu honek gako batzuk laburbiltzen ditu plan bat abian jartzeko, ikastetxean haurren eskubideak sustatzea helburu hartuta. Programaren helburu nagusia da Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek haurren eskubideak euren eskubideak direla jakin dezaten lortzea eta beren komunitateko eragile aktibo diren aldetik eskubide horiek sustatzea.

www.unicef.es/educa/biblioteca/crec-programa-promocion-derechos-infancia

HAURREN SEXU-ABUSUA JOKOZ KANPO GERATU DA

Haurren sexu-abusua oso arazo larria da, adin guztietako haurrak eta nerabeak erasotzen dituena. Heldu guztien erantzukizuna da arazo hori kirolaren esparruan ere prebenitzea. Kanpaina honek tresnak eskaini nahi ditu kirolaren esparruan hurrekin eta nerabeekin prebentzioa eta detekzio goiztiarra aurrera eramateko. Gerta daitekeen eskubide-urraketa larrienetako bat da. Abusu horrek agerian uzten du babesle izan behar zukeen inguruneak huts egin duela, eta horregatik da hain garrantzitsua eraginkortasunez jardutea arazo hori lehenbailehen prebenitu edo antzemateko.

“Haurren sexu-abusua jokoaz kanpo geratu da” kanpaina 5 gidek osatzen dute, irakurle desberdinentzat baina helburu berarekin: kirolaren esparruan sexu-abusua antzematea eta prebenitzea, hezitzaileen, entrenatzaileen eta kirol-instalazioetako arduradunen artean sentsibilizazioa, prestakuntza eta informazioa sustatuz (eta haien bitartez haurren artean ere). UNICEF lankidetzan aritu da gida horiek lantzen Kirol Kontseilu Nagusiaren “Haurren sexu-abusua jokoaz kanpo geratu da” kanpainaren barruan.

<https://www.unicef.es/educa/biblioteca/abuso-sexual-infantil-fuera-de-juego>





EZAGUTZEN DUZU ZURE UDALERRIKO HAURREN ETA NERABEEN KONTSEILUA?

Gero eta udalerrri gehiago daude haurrek eta nerabeek parte hartzen duten kontseilu bat dutenak. Kontseilu horrek ozen eta argi hitz egiten du udalerriko haurrei eta nerabeei dagozkien gaiei buruz. Partaidetzazko kontseilu horietan haurrak eta nerabeak dira protagonistak, eta maiztasunez biltzen dira bertan kezkatzen dituzten gaiez jarduteko eta haien ingurunea hobetzeko irtenbideak proposatzeko.

Jakin ezazu ba ote dagoen horrelako kontseilu bat zure udalerrian eta ikastetxeko ikasleren bat parte hartzen ari ote den edo parte hartu nahi ote duen bertan. Animatu egin nahi

zaituztegu ikastetxearen eta zuen udalerriko partaidetzazko organoaren artean lotura bat ezartzera! Gainera, gidan eta bertan biltzen diren jardueretan proposatzen diren eduki guztiak haurren kontseiluarekin izandako bileretan landu daitezke, horrela, jardueren proposamenak eta emaitzak udalarekin partekatu ahal izateko eta, denborarekin, garrantzi handiko gauza batez jabetzeko: neska-mutilek planteatzen dituzten proposamenen ibilbidea ikusi ahal izatea, eta baita udal-politikan duten eragina ere. Haurren iritzia funtsezkoa da herritartasun aktibo bat eraikitzeko! Animatu egiten zaituztegu zuen udalerriko kontseiluan parte hartzera! **www.ciudadesamigas.org**



UDALERRIAK HAURREN ETA NERABEEN ARTEKO INDARKERIAREN AURREAN

Gida honen helburua da haurren eta nerabeen arteko indarkeriari ikusgarritasuna ematea, komunitateko arazo sozial bat den aldetik, eskola-eremura eta erasandako familietara bakarrik mugatzen ez dena. Gizarte-eragileen interbentzio koordinatu batetik abiatuta, sarean lan egitetik, ekin daiteke haurren eta nerabeen arteko indarkeriaren aurrean, edozein motatakoa eta edozein eremukoa izanda ere. **ciudadesamigas.org/documento/los-municipios-ante-la-violencia-ninos-ninas-adolescentes/**

Edizioa

UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Diseinu grafikoa

Rex Media SL

Itzulpena

Bitez Logos

ISBN: 978-84-948540-2-6

Haurren eskubideei, garapen jasagarriari eta herritartasun globalari buruzko hezkuntza-materialak, baliabideak eta jarduerak UNICEF Espainiako Batzordearen lanaren zati bat dira Giza Eskubideetarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzan. Hemen erakutsitako gertakariak eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspegia adierazi.

Erabilitako mapak estilizatuta daude eta ez daude eskalan eginak. Ez dute adierazten UNICEFen jarrera leku edo herrialde bakar baten egoera legalaren aurrean, ezta mugak ezartzearen aurrean ere.

Material hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziarekin (AECID) sinatutako akordioaren esparruan egin da: "Garapenarekin eta haurren eskubideekin gizarteak konpromisoa har dezan sustatzea Espainiako hezkuntza-sistematik". Argitalpen honen edukia ez du zertan islatu AECIDen iritzia.

AZALEKO ARGAZKIA: Lera, 10 urtekoa, kamerara begira ari da bere ikasmahaitik Marinkako (Ukraina) eskola batean. Gerrak eragin izugarriak izan ditu bertako klaseetan, sarritan eten ohi baitituzte bonbardaketek eta ikastetxeak sotoan gaitu duen bunkerrera egin behar izaten dituzten bisitaldi luzeek. Jolas egiteko duten eskubidean ere eragina izan du: "ezin dugu jolastokian jolasean ibili haur bati besoan tiro batek jo zionetik jolastorduan". Indarkeriak, bere agerraldi desberdinetan, mugatu egiten ditu haurren eskubideak, eragotzi egiten du haien garapena eta murriztu egiten du haien ahalmena.

UNICEFek munduko leku latzenetan dihardu lanean haur eta nerabe babesgabeengana iristeko eta haur guztien eskubideak defendatzeko, leku guztietan. 190 herrialdetan eta lurraldetan gaude, behar den guztia egiten dugu haurrei bizirauten, aurrera egiten eta haien ahalmena garatzen laguntzeko, umetatik nerabe diren arte. Eta inoiz ez dugu amore ematen. UNICEFen lana osorik finantzatzen da mundu osoko milioika pertsonen borondatezko ekarpenen eta gobernuetan, gizarte zibilean eta sektore pribatuetan ditugun aliatuen ekarpenen bitartez.

10. eta 11. orrialdeetako ilustrazioak Freepik, Smashicon, Pixel Perfect eta Turkub-en eskuragarri dauden jatorrizkoetan oinarrituta egin dira, baita jabari publikoko irudietan eta UNICEFen (© UNICEF/UN033525/Masri) irudietan oinarrituta ere.



LEHI AKETA:

unicef 

KOMIKIAK

SUPERHEROIAK
ESKOLAN

IRAILAK 1 - URRIAK 21

Informa zaitez: unicef.es/eus/educa/blog/lehiaketa-komikiak-superheroiak

unicef.es/educa



FINANTZATZAILEA:



LAGUNTZAILEA:

